# DIRU-LAGUNTZAK GIDABAIMENA BASAURIKO AUTOESKOLETAN ATERATZEAGATIK

**ONURADUNAK**

Basaurin erroldatutako 17 eta 23 urte bitarteko gazteak (1994-2000 bitartean jaiotakoak), gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin dutenak.

**BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

- Eskatzaileak gidabaimena ateratzeko prestakuntza eta azterketa teorikoa euskaraz egin dituela ziurtatu beharko du.
- Eskaria aurkeztu orduko, matrikula ordainduta eduki beharko du.

**DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA**

- Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik eskatzaileak **100 euro** jasoko ditu.
- Horrez gain, diru-laguntza onuradunek **100 euroko saria** jasoko dute udalerriko gasolindegietan erregaitan gastatzeko.

**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

- Eskaera orria + kontu korrontearen zenbakia (20 zenbaki)
- NAN agiriaren kopia
- Autoeskolaren ziurtagiria, prestakuntza teorikoa euskaraz egin dela eta matrikula ordaindu dela adierazten duena, edota matrikula ordaindu izanaren agiriaren kopia, jatorrizkoarekin konpultsatzeko.
- Azterketa teorikoa euskaraz egin dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

**AURKEZTEKO EPEA**

- **2017ko apirilaren 7tik urriaren 31ra arte**.

**ZURIKETA**

Sariaren kasuan, onuradunek saria jasotzen denetik 6 hilabeteko epea izango dute diru-kopuru hori erregaitan gastatzeko. Epe hori amaituta, betiere 2018ko uztailaren 31 baino lehen, Kultura Politika eta Euskara Arloan aurkeztu beharko dituzte gastu horien egiaztagiriak, erosketa-agiriak. Horietan honako informazioa agertu behar da: igorlea, bezeroa (izen-abizenak eta NAN zenb.), faktura zenbakia, data eta kontzeptua.

## BASAURIKO AUTOESKOLAK EUSKARAZ

**BASKONIA AUTOESKOLA**
Agirre Lehendakaria 73
**94 440 43 21**

**IRRINTZI AUTOESKOLA**
Agirre Lehendakaria 3
**94 449 56 03**

Balendin Berriotxoa 32
**94 449 32 99**

**MIKEL AUTOESKOLA**
Nagusia 19
**94 426 34 34**

Kareaga Goikoa 42
**94 401 08 00**

**BIDEBIDETA AUTOESKOLA**
Elkano z/g
**94 440 56 64**

HARRERA EUSKARAZ! ORDENAGAILU BIDEZ! TEORIKOA! PRAKTIKOA!

**INFO + ZURE AUTOESKOLAN EDO BASAURIKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAN**
**94 466 63 12 ■ EUSKARA@BASAURI.EUS**

Basauri · Alkarbide (Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilgunea) · Bizkaia foru aldundia / diputación foral · Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco · EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea / Asociación de Municipios Vascos)